

# Resurreccion Maria Azkue eta kontagintza



Ana Toledo Lezeta\*

*Resurreccion Maria Azkuek kontaketa-prosa sustatu eta landu zuen. Bere Euskalzale (1897-1899) astekaria izan zuen kontagintza bultzatzeko bitarteko. Bultzatzaile soil izatera mugatu gabe, kontaketak idazteari ere ekin zion. Aldizkaria dute argitalpen-leku batzuk: bat, La Abeja (1889-1890) hilabetekariak jasotzen du, besteak Euskalzalek. Lenengo irakurgaia. Bein da betiko (1893) eta Ardi galdua (1918) liburu moduan kaleratu zituen, Latsibi argitaragabe utziz.*

*Giltza-Hitzak: Kontagintzaren sorrera. Irakurgaia. Leienda. Ahozko tradizioa. Aldizkaria. Ohar metalinguistikoa.*

*Resurrección María de Azkue promovió y cultivó la prosa narrativa por medio de su semanario Euskalzale (1897-1899). Lejos de limitarse a ser un mero impulsor, también se dedicó a escribir narraciones. Algunas aparecen en revistas: una de ellas fue recogida por la revista mensual La Abeja (1889-1890), las demás aparecieron en Euskalzalek. Lenengo irakurgaia. Bein da betiko (1893) y Ardi galdua (1918) se publicaron en forma de libro, mientras que Latsibi quedó inédita.*

*Palabras Clave: Nacimiento de la narrativa. Novela. Leyenda. Tradición oral. Revista. Observación metalingüística.*

*Resurrección María de Azkue encouragea et cultiva la prose narrative au moyen de son hebdomadaire Euskalzale (1897-1899). Loin de se limiter à être un simple promoteur, il s'est également consacré à écrire des récits. Quelques-uns d'entre eux paraissent dans des revues: l'un d'eux a été publié dans la revue mensuelle La Abeja (1889-1890), les autres parurent dans Euskalzalek. Lenengo irakurgaia. Bein da betiko (1893) et Ardi galdua (1918) fut publié sous forme de livre, cependant que Latsibi est inédit.*

*Mots clés: Naissance du récit. Roman. Légende. Tradition orale. Revue. Observation métalinguistique.*

---

\* Deustuko Unibertsitatea. Camino Mundaiz, 50. 20012 - Donostia

Resurreccion Maria Azkue hil zela berrogei eta hamar urte igaro dira. Ez dira alferrik igaro! Ez horixe! Gaur urtehurren hori dela eta Lekeitioko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak eratu dituzten jardunaldi hauek aukera ezin hobea eskaintzen dute Azkueren figura erraldoi hori gogarazteko, berak jorratutako alor desberdinak arretagune bihurtzeko, bere ekarriak neurtzeko eta, honela, ondo merezia duen omenaldia egiteko.

Urteak ez dira ez alferrik igaro. Egun, esaterako, espezializazioaren garaian bizi gara eta espezializazioaren garai honetatik begiratuta, alor jakin bateko atalean sakontzera bideratzen garen garai honetatik begiratuta, mirespena besterik ezin sor dezake hainbeste alorretara eta hainbeste jardueretara iristeko ahalmena erakutsi zuen gizonak. *Ekin eta jarrai* goiburua bere eginaz, hainbat esparrutara hedatu zuen bere jarduna: hiztegi-gilea, gramatikagilea, herri-jakintzaren biltzailea, operagilea, aldizkari sortzailea eta kudeatzailea izan zen. Baita kontagintzaren sustatzailea eta kontalaria ere: besteri kontaketa-prosa jorratzeko gonbita luzatzeaz gain, berak ere heldu zion egiteko honi.

Euskal literatura inguratzen duten literaturetan lehenago sortu zen kontaketa-prosa: Erdi Aroan bertan eman zituen lehen urratsak. Euskal literaturaren ibilbidea XVI. mendean hasten da. Hasi, beste literatura horietan bezala, neurtitzaz baliatzen zen idazlan batekin hasi eta XVI. mende horren mugen barnean berehala ireki zizkion ateak prosari. Baina prosaren esparru honetako adierazpenak ez ziren hedatu kontaketa-prosara XIX. mendearen lehen bi herenak igaro arte. Hiru mende joango dira prosazko lehen idazlana argitaratetik kontaketa-prosaren lehen emaitzak argia ikusi arte. Honela bada, euskal literatura beratu inguratzen duten literaturekin erkatzeak euskal prosaren sorreraren berankortasuna baino gehiago kontaketa-prosarena azpimarratzen du.

Ordurarte ibili gabeko bide bati hasiera ematen zaio XIX. mendearen azken herenean. Bidegintza honetan lehen urratsak ematerakoan, kontaketa-prosa lantzen hasterakoan, hor zegoen Resurreccion Maria Azkue. Ekarki garrantzizkoa egiten du alor honetara. Garrantzizkotzat jo daiteke bi alderditatik gutxienez: bata sortzaile legez utzi duen uztarengatik; bestea, kontaketa-prosaren sustatzailea izateagatik.

Aldizkari bakar bat begiratzea aski da Azkue kontagintzaren sustatzailea izan zela baieesteko: *Euskalzaile* (1897-1899). Azkuek berak sortu eta zuzendu zuen iraun zuen bitartean. Astekaria kaleratzen duenerako badaki euskaraz idatzitako liburuen kopurua urria dela eta, urria ez ezik, zenbait literatur genero landu ez dituen. Astekariaren lehen aletik bertatik antzemandako gaitzei erremedioa jartzera abiatzen da. Honako dei hau zabalitzen du:

“EUSKALZALEK, adiskide batzuen laguntasunaz, gure liburuteri urri banakatua ugaldutearren, eta euskereak, beste berbeta edo izkeraak daukezan lako irakurtekoak euki daizan dei bat egin nai dautse euskeraz esku-tiztuten dakienai.

Lan bi sarituko dira batzaldi onetan. Lenengoa: Biltoki edo teatrorako lan bat: musikea ezarri leiona.

Bigarren lana: Erderaz *novela* edo *roman* deritxon lako liburu bat”<sup>1</sup>.

Azkueren begi zoliak atzemana zuen euskal literaturaren historian zein ziren literatur generorik ahulenak: antzertia eta eleberria.

Ez zuen arrazoi-faltarik. Zuberoa bizileku sendo izan zuten -eta duten- herri-antzerkiaren adierazpenak alde batera utzita, Pirineoz honantza ezagutzen den lehen testua XVIII. mendekoa da. Testu-urritasuna nabaria da; izan ere, lehen testu honen ondotik XIX. mendearen azken herenerarte ez da ekoizten besterik, harik eta “teatro berria” deitu dena lantzen hasten den arte, hain zuzen ere.

Azkuek antolatutako antzerti-sariketa hau euskal literaturan lehenbizikoa ez bada ere, urritasun nabaria erakusten zuen generoa sustatzeko asmoa aitortu behar zaio. *Novela* edo *roman* sailean, berriz, euskal literaturako lehen sariketa da. Txomin Agirrerren *Auñemendiko Loreak* eskuratu zuen saria eta *Euskalzale* astekariak berak “irakurgaiak” sailean argitaratu zuen lehen-lehenik astean-astean atal bat emanaz. Urte berean, 1898an, liburu moduan ere plazaratu zen. Antzertian ez bezala, lehen eleberri-lehiaketaren ondorioz, lehen euskal eleberria jaioko da.

Dena den, Azkuek *Euskalzale* aldizkariaren zuzendaritzatik kontagintza sustatzeko egindakoa ez da literatur lehiaketa baten antolaketa mugatzen. Azkuek berak bazuen “irakurgai” bat liburu gisa argitaratua: *Bein da betiko*. Orain berriro emango du *Euskalzalaren* orrialdeetan atalka-atalka, oin-ohar batean argituz berrargitalpen honen zergatia:

“Oraintxe sei urte argitaraturiko irakurgeti txiki au asko zabaldu ez talako, bigarrenez erakutsi nai dogu orri onen artean”<sup>2</sup>.

Besterik ere erants daiteke: “itz-jostaldietan” saritutako hainbat “irakurgai” berrargitaratu zituen. *Euskalzalek*, beste zenbait sailen artean, “irakurgai”rena eta ipuinarena bereizten zituen. Biek sail finkoa izan zuten astekariak kaleratutako ale guztietan. “Irakurgaien” eta ipuinen argitalpen-leku honetan bere sorkariak ere eman zituen Azkuek. Nolanahi ere, bere sorkariek eskatutako arretak ez zion eragotzi besterenak bultzatzea uneoro gogoan izatea: *Euskalzalaren* orrialdeak kontaketa bidali nahi zituen irakurle orori ireki zizkion. Hala zioen *Bein da betiko* berrargitaratzera zihoala argibideak emateko erabili zuen oin-oharrean:

“Gure irakurle-arteetan bat baiño geiago egongo dira onetariko irakaspen edo *leyendak* dakiezanak.

Bat edo battxu guri bere elitzakiguz txarto etorriko”<sup>3</sup>.

---

1. Ik. “Batzaldia” in *Euskalzale*, I, 1897, 8. or.

2. *Euskalzale*, II, 1898, 276. or.

3. *Euskalzale*, II, 1898, 276. or.

Honela bada, euskal kontagintzaren sorrerara Azkuek egindako ekarriak bi alderdi hartzen ditu: bata bitartekoak eskaintzeari dagokio, bestea egiletzari.

## 1. LENENGO IRAKURGAIA. BEIN DA BETIKO (1893)

Azkuek ipuinak, irakurgaiak eta gertirudiak idatzi zituen, hots, istorioak. Noiz eta, euskaraz istorioak idaztea oraindik ia nobedade hutsa zenean. Plazaratu zuen lehen irakurgaiak aldizkaria izan zuen argitalpen-leku. Bilbon argitaratu zen *La Abeja* (1889-1890) hilabetekariaren ale desberdinetan dago “Ezti-Abauak” goitzenarekin izenpetzen duen *Peru Matraka ta Pedr’anton*. Sei ale kaleratu zituen *La Abeja* hilabetekariak. Azkenengoan, 1890.eko maiatzekoan “Iarraituko dau” iragartzen bazuen ere, Azkuek ez zuen segidarik ematerik izan.

Goitzenetik izen-abizenetara eta aldizkariko atalka-atalkako argitalpenetik liburura igarotzen da bere bigarren irakurgaiak: Azkuek 1893an *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* argitaratzen du. *Lenengo irakurgaia* dio, bukatu gabe gelditu zitzaion *Peru Matraka ta Pedr’anton* irakurgaia ordurako kaleratua zuen arren. Zilegi bedi Azkuek kontaketa-prosa erabiliz plazaratzen duen lehen liburuari buruzko jarduna izenburuaren lehen atalarekin hastea: *lenengo irakurgaia*. Azkue hizkuntzalariaren kezka ez ezik, kontaketa-formez zuen eza guera ere agerian uzteko baliagarri izan daiteke.

Euskal kontaketa mundu idatzira jaiotzen ari den honetan izenak ipintze-ko premia dago eta izen horiei izana atxiki beharra. Dirudienez, ipuinak ez zuen alderdi honetatik arazorik sorrarazten, baina kontaketa-prosaren eremua zabala izaki, ñabarduren ordua iritsia zen. Zinez, ez da lantegi erraza kontaketa-prosaren barrutian mugarriak jartzea eta nekez aurkituko du inork erabat gogobetekoa duen mugaketarik eta sailkapenik. Gainera, zorionez, idazleak iaioak dira mugaketa eta sailkapenei ihes egiten. Dena den, luzera, erabilitako langai-mota eta abarren argitan, kontaketa-prosaren barrutian sailak berezi ohi dituzte azterlariek. *Euskalzale* astekarian, besteak beste, *irakurgaien* saila aurkitzen da. Izen honi zein izan atxiki zioten igartzea, ordea, ez da bate-re erraza. Bere osagaiek aditzera ematen duten edo orduko eta egungo hiztunek atxikitzen dioten esanahia baino murrizagoa adierazteko erabili zutela begi bistakoa da. Baita “irakurgai”rekin prosa narratiboaz baliatzen ziren testuak izendatu zituztela antzematea ere, baina izendapen horren azpian argitaratu zituzten testuen irakurketatik ezin ondoriozta daiteke zein irizpideren arabera eraiki zuten “irakurgai” deitu saila, egungo ikuspegitik begiratuta behintzat. Izan ere, luzera-modu desberdin samarreko istorioak jasotzen dira bertan. Hala izendapen honek biltzen ditu, esaterako, Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea*, eleberrilehiaketaren irabazlea, eta Franzisko L. Alen-en “Arrantzalia”<sup>4</sup>, orrialde oso bat betetzera heltzen ez dena. Luzera-modu oso

---

4. *Euskalzale*, III, 1899, 26-27. orr.

desberdinetakoak ez ezik, jatorri desberdina duten langaiez elikatzen diren istorioak ere jasotzen ditu sail honek.

*Euskalzale* aldizkaria sortu aurretik erabili zuten “irakurgai” izendapena. Beste testu-mota batzuen artean “irakurgaia” saritzen zuten Donostiako “itz-jostaldiek”: “tradición o leyenda” hitzekin itzuli zuten gaztelerara. Azkuek Donostiako lehiaketa hauetan saritutako leiendak *Euskalzaletan* berrargitaratzean, “irakurgai” sailaren azpian eman zituen. Haatik, XX. mendearen lehen urtetan “irakurgei”/“irakurgai” deitu zituzten beren testuak Txomin Agirrek edo Jose Manuel Etxeitak, egun eleberri deitzen ditugun testuak, hain justu. Honenbestez, nekez aurkitu ahal izango litzaioke egun ordezkorik: eleberria izendatzeko ez ezik, leiendak izendatzeko ere erabili zuten, baita leiendaren bat oinarri ez zuten kontaketa laburrak ere. “Irakurgai” balio anitzez jantzi zuten.

Azkuek *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* izenburua jartzen duenean, “lenengo eleberria” esaten ari da, ezbairik gabe. “Irakurgai” hori leienda adierazteko erabil zezakeen, bete-betean erabili ere, *Bein da betikoren* neurriek kontaketa-forma laburren artean kokatzen dutelako eta Lekeition entzundako istorio bat lantzen duenez, ahozko tradizioa oinarri duelako... Baina, “irakurgai” leienda aditzera emateko erabili izan balu, ez zukeen aurretik *lenengo* jarterik. Donostiako “itz-jostaldiak” ezagutzen zituen Azkuek bazekien bere *Bein da betiko* ez zela lehenbiziko leienda, ordurako hainbat leienda argitaratuta zeudela “itz-jostaldi” horietan saritutako idazlanak jasotzen zituzten “Oroimengarrietan” eta baita Donostian argitaratzen zen *Euskal-Erria* aldizkarian ere.

Beraz, “lenengo irakurgai”tzat jotzen du *Bein da betiko*. Dena den, “lenengo” izatearen ohore hori beste bati egotziko dio, beranduago: 1898an liburu gisa argitaratu zen Txomin Agirrereren *Auñemendiko Loreari* eskainiko dio, hain zuzen ere. Neurriren batean ez zuen arrazoi-faltarik, ez “lenengo” izatearen ohore hori bereari emateko, ezta ohore hori besteri uzteko ere.

Ustezko arrazoiak bila euskal kontagintzak ordurarte egindako ibilaldia ezagutzera jo daiteke. Ezer gutxi da euskal kontagintza Azkuek *Bein da betiko* argitaratu aurretik. Ahozko kontaketen eremua zabala ez ezik, bizitza sendoa zuena zen, ez horrela idatziena. Itzulpenen batek, egokitzapenen batek eta aldizkarietan argitaratutako kontaketa labur batzuk osatzen zuten altxor hori.

Itzulpenak bi besterik ez: Jean Baptiste Dasconagerre-ren *Les échos du Pas de Roland*, *Atheka gaitzeko oihartzunak* izenburupean 1870ean argitaratu zen; *Santa Jenobebaren bizitza* Gregorio Arruek itzuli eta 1868an kaleratzen da lehen aldiz. Egokitzapenei dagokienez, bakar bat: Antonio Truebaren *El judas de la casa* moldatuz, Antero Apaolazak *Pachicu Cherren* (1890) argitaratzen du.

Aldizkarietan dagoena ez da askoz ugariagoa. Jean Duvoisin-ek *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkarian *Baigorriko zazpi liliak* (1884-1885)

eman zuen, baina 1987rarte ez du lortuko liburu moduan plazaratzea. Jean Baptiste Elizanbururen *Piarres Adame Saratarra. Zenbait hitztorio lapurdiko eskuaran* kontaketa argitalpenari Donibane Lohitzuneko *La Nivelle* aldizkariak hasiera eman bazion ere, *Le Réveil Basque* da atalka-atalka osorik argitaratu zuena. Aldizkari argitalpenari 1888an liburu gisa egindakoa gehitu zion. Azkenik, aldizkarietan daude Resurreccion M<sup>a</sup> Azkuek bukatu gabe utzi zuen *Peru Matranka ta Pedr'anton* eta Donostiako "itz-jostaldietako" literatur lehiaketetan saritu zituzten leiendak. Leienda hauek oso laburrak dira.

Itzulpenak eta egokitzapena alde batera utzita, *Bein da betiko* argitaratu aurretik liburu moduan plazaratu den kontaketa bakarra Elizanbururen *Piarres Adame* da. Eta honela amaitzen zuen berau Elizanburuk:

"Hau da, irakurtzaile maitea, Piarres Adame gure adiskide zaharraren haurreko hitztorioen, erran nahi baita, lehen partearen akhabantza.

(Denbora laburrik barnean, berriz hasteko xedea dugu mintzatzan Piarres Adameren gaztetasuneko, bai eta ere zahartasuneko hitztorio zenbaitetz)<sup>5</sup>.

Beraz, lehen partea besterik ez zen Elizanburuk moldiztegitratutakoa. Jakina denez, ez zion jarraipenik eman.

Honela bada, ez zuen arrazoi-faltarik Azkuek jarri zuen izenburua jartzeko: *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*. Aurretik argitaratutakoak edo ez zuten euskara jatorrizko hizkuntza edo jarraipena agintzen zutenak ziren eta, honen bestez, amaitu gabeak, edo aldizkaritan soilik argitaratuak.

Hala ere, esan bezala, lehenengo irakurgaia izatearen ohorea kendu egin zion 1898an Txomin Agirrerren *Auñemendiko Lorea* argitaratzean. Azkuek, *Euskalzale* aldizkariaren zuzendariak, aldizkari honetan atalka-atalka argitaratzera zihoala *Auñemendiko Lorea*, *Euskalzale* goitizena erabiliz honako oin-ohar hau idatzi zuen:

"Auxe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia. Au baiño aurrerago iaio direnak, batzuk erdiz erdizean baiño eztira agertu (*Batxi guzur, Peru Matranka ta Pedranton* da besteren bat); beste batzuk irakurgaia baiño irakurgaitxuaren izena egokiagoa edo aiutuagoa dabe"<sup>6</sup>.

Horra hor, Azkueren arrazoiak 1893an argitaratua zuen bere *Bein da betikori* lehenengo irakurgaia izatearen ohorea kentzeko eta Txomin Agirrerren *Auñemendiko Loreari* ohore hori emateko. Batzuk amaitu gabeak izaki, eta besteak laburregiak, ezin eskura dezakete irakurgai izendapena.

---

5. ELISSAMBURU, Jean Baptiste: *Piarres Adame*, Elkar, Donostia, 1986, 86. or. (Ibon Sarasolak prestatuturiko edizioa).

6. *Euskalzale*, II, 1898, 12. or.

Luzera da irizpidea. Irizpide honetara jotzean kontaketa-forma luzea kontaketa-forma laburretatik bereizten ari da. Gauza jakina da, makina bat saioren ostean, eleberria ez dela mugatu gogobetekoa den modu batean. Kanpo nahiz barne-ezaugarrietara joz, definizioak bilatu diren arren, mugatze-saio orori ihes egiteagatik genero mugagabe moduan hartu da. Hitz-kopurua bera erabili da mugaketa-irizpidetzat. Halako kanpo-ezaugarri batean oinarritzea asegarri ez izanda ere, badirudi onartzen dela eleberriak tokia eskatzen duela, luzera, hain zuzen ere. Eleberrian ekintza geldierazten duten edo ekintza luzatzen duten pasarte asko dago: deskripzio eta azterketa geldiak, zorrotzak, xeheak daude; arazoak sortuz doaz, pertsonaiak bilakatuz eta abar. Guzti honek tokia eskatzen du, luzera.

Beraz, Azkuek bazuen euskarririk luzera irizpidetzat hartzeko eta horren arabera epaitu zuen euskal eleberriaren hasiera. Kontaketa-forma luze moduan zekusan eleberria: horregatik atzeratzen du sorrera Agirreren *Auñemendiko Lorea* argitaratu arte. Azkue hizkuntzalaria, berriz, ez zuen asebate eleberria irakurgai izendatzeak. *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* (1893) argitaratzean erabili izanagatik, 1897an eleberri-lehiaketarako deialdia egitean “Erderaz *novela* edo *roman* deritxon lako liburu bat” eskatzen zuen, eta gerora, “gertirudi” egokiagotzat jo zuen. Hala deitu zituen bere hurrengo eleberriak: *Ardi galdua* eta *Latsibi*.

Dena den, Azkuek liburu moduan kaleratu zuen lehen kontaketa-izenburuan *lenengo irakurgaia* jartzeak eragin duen jardunak ez zuen bilatzen hainbeste euskal literaturako lehen eleberria zein den finkatzea, nola beste alderdi hauek agerian jartzea: batetik, prosak bere eremua kontaketa-izenburuaren zabaltearen bidez zabaltzen diren honetan sortzen diren izendapen-arazoak; bestetik, Azkuek bazuela irizpide bat behintzat eleberria mugatzeko: luzera.

*Lenengo irakurgaia. Bein da betiko* izenburuaren bigarren atalak, kontaketa-izenburuarekin duen loturaz gain, badu liburuak daraman eskaintzarekin ere. Antoine d’Abbadie jaunari eskainia, kontaketa-izenburuari atxikitzen dio eskaintza:

“Euskaldunak: nire izen da izatetxoak ezin dauana Aitalen baten izate ta izen onak egin bei. Batu beiz gure biotzak *bein da betiko*”<sup>7</sup>.

Ipar eta hegoaldeko euskaldunen bihotzak behin eta betiko batzeko nahia azaltzen du.

Kontatzen duen istorioari dagokionez, jadanik azaldu da Azkuek leienda batera jotzen duela, lekeitiar bati entzundako leiendara, hain zuzen ere. Azkue kontalaria ez ezik, Azkue herri-jakintzaren biltzailea ere baliatu zen ahozko tra-

---

7. AZKUE, Resurreccion Maria: *Lenengo irakurgaia. Bein da betiko*, Imprenta de la Casa de Misericordia, Bilbao, 1893, IV. or. Aurrerantzean egindako aipamen guztiak argitalpen honetatik jasoko dira.

dizioan bizirik zegoen leienda honetaz, *Euskalerraren Yakintzan* jasoko baitu, honako argibide hau bukaeran erantsiz:

“Gazte gaztetxo nintzala, Lekeition bertan, Jose Francisco Maruriren ezpanetatik eldu zan nere belarrietara, laburtxoago”<sup>8</sup>.

Ez zen mugatu luzatzera, gaztelerazko itzulpena ere erantsi zion<sup>9</sup>.

Honenbestez, bi aldiz landu zuen entzundako leienda, behin *Bein da betiko* egiteko, beste behin *Euskalerraren Yakintzara* eramateko.

*Izua* ezaugarriaren inguruan egituratzen da *Bein da betiko*. Bada pertsonaia bat, Txanton izenekoa, ganoragabea, berritsua eta batipat izutia dena; beste bat, Txili izenekoa, berriz, beldurtia ez dena, izutia ez dena. Txantonen izaera izuti hori izango da gertaeren eragile; izan ere, bere lagun Errokeren “ekintza” bideratuko du, behin eta betiko izateko modu hori ezabatzeko helburua duen ekintza, hain justu. Hala adierazten dio Errokek bere asmoa Mari-pari, Txantonen emazteari:

“Txantoni burutik zorgiñak kentziarren’ okerreridixaren bat eñ biar dxa-kola esan eban Errokek” (50. or.).

Kontaketa bat da Txanton eskarmentatzeko prestatzen duten ekintza. Errokek sorginen istorio bat esan eta, entzutean, Txanton gaisotu egingo da. Horrela ixten da Txantonen izaera izutiak sortutako sekuentzia. Baina, une honetan, Txilik, lehendik ere gai honek ez ziola izurik sortzen esana zuenak, gertaeron eszena-lekura azaldu eta desafio hau jaurtiko du:

“-Ona, Erroke (ukabilaz maiari ots eraginaz esan eutsan Txilik): ire aita-aita baizen sendoa enauk; onelan da guzti bere inpernuko deabrua bera Damutu-iantziaz agertuko balitzakit, eta iarraituteko esango baleust bere enintzake bildur izango, eneuke atzera egingo” (80. or.).

Txanton beldurtiak eragindako sekuentziari kateatuz hasten da Txilik akui latutako sekuentzia: Txanton beldurraren beldurrez gaisotu da emaitzak Txiliren desafioa bultzatuko du. Desafioak eragiten duen garapena deabrua “damutu-iantziaz” agertuz eta Txili Oibarko elizatoraino eramanez gauzatuko da. Hor Ama Birjiñaren aurrean Txilik beldur dela aitortzean ixten da desafioak irekitako sekuentzia, “Antiguako Ama Maria bildur nai” esaten duen unean.

Abiapuntuan zegoen aurkakotasuna, Txanton izutia da, ez horrela Txili, besterik da helmugan: Txanton izutu egin da, baita Txili ere.

---

8. AZKUE, Resurreccion Maria: *Euskalerraren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)*, II, Espasa Calpe, Madrid, 1966, bigarren argitalpena, 87. or.

9. Op. cit., 79-87. orr. Orrialde bakoitzaren ezkerrean euskaraz doa kontaketa eta esku-bian erdal itzulpena.



Badu, azkenik, *Bein da betikok* beste osagai bat: Kattalinek, Txiliren alabak, Fernandez mandazainarekin ezkontzeko aitaren baimenik ez izatea. Fernandezek Txiliri bere alabarekin ezkondu nahi duela adieraztean, ez du erantzunik jaso. Erantzun-falta hau dela eta, Fernandez Kattalin ebatsi eta berearekin Errioxara eramatekotan egon izanagatik, burutugabe du bere asmoa. Fernandezek bere nahia eskuratzeko duen oztopoa gainditzea Txilik botatako desafioak duen garapenari lotuko zaio; izan ere, deabruak Oibarko elizatoraino daramanean Txili atzetik doa mandazaina. Han Txili erabat beldurturik dagoenean, mandazaina ikusteak sorrarazten dion pozak eskuzabal bihurtzen du eta zernahi eskatzeko aukera ematen dio: mandazainak Kattalinekin ezkontzea eskatzen du. Honela ixten da ezkondu nahiak eta horretarako baimenik ez izateak irekita zeukaten gatazka.

Denbora laburra da *Bein da betikokoa*. Gertaerek eguerdi batean hasi eta hurrengo eguneko goiz alderarte irauten dute. Denbora trinkoa da, tentsioaren denbora. Jazoerek berebiziko abiadura hartzen dute eta baretze-aldirik ezagutu gabe garatuz, azken emaitzara heltzen dira: mataza da nagusi. Kontaketak guneen berri ematen du, nahitaezko denaren berri, xehetasunak, hedapenak, oinarrizkoa ez dena alboratuz. Bestela esanda: funtzio kardinalen berri ematera mugatzen den joskera erakusten du.

Azkuek berak dio ahozko tradizioan dagoela istorio honen jatorria. Ez da zaila jatorri hori atzematea, arrasto horiek nonnahi sumatzen direlako. Honela, ahozko kontaketen munduan oso erabiliak diren naturaz gaindiko indarren agerpena nabaria da: sorginak, deabrua, arima... Baita azterketa xehe oro ekiditea ere: ekintzaren kontaketa-aren luzapena ekar dezaketen pasarteentzat ez dago lekurik. Arrasto horien ondoan hitzak hartzen duen indarra azpimarratuta gelditzen da. Hitza da gertaera guztien eragilea: Errokek kontaktutako istorioak Txanton gaisotzen du; Txilik botatako desafio errealitate bihurtzen da. Hitza ez dago nolanahi erabiltzerik, esandakoak izan ditzakeen ondorioengatik.

Azkuek, kontaketak egin zituzten gainontzeko euskal idazleek bezala, eta kontaketagile orok bezala, irakurleagoak ematen duen babesa bilatu zuen. Euskal irakurleagoa urria ez ezik, beste hizkuntza batean irakurtzen ikasitakoa da, eta noski, euskaraz kontaketak irakurtzeko ohiturarik ez duena: idatzi ez badira, ezin irakurtzeko ohiturarik izan. Egoera honetan Azkuek bere *Bein da betiko* hezurmamitzeko ahozko mundura langai bila jotzen duenean, aukera oso egokia egiten du irakurleagoaren babesa eskuratzeko. Izan ere, hartzailearentzat ezaguna zen mundu batetik elikatzean, hainbat irakurlek entzuna zuen istorio batean oinarritzean, errazago zatekeen irakurleago zabalagoa erakartzea. Horren froga idazten ari zen orain aldi hartantxe bertan zeukan. Orduarte, eta baita beranduago ere, euskaraz arrakastarik handiena izango duen kontaketak, bere sustraiak ahozko munduan txertatzen zituen. Honela zioen L. Mitxelenak:

“Ez dira horrenbeste gure artean jende arruntaren eskea (eta gehienok izan gara arruntak arlo honetan) biztu duten irakurgaiak. Gipuzkoan geldi-

tzen naizelarik, Lardizabalen *Kondaira* datorkit gogora, edo Arrueren Brabanteko Jenobeba edo, geroago, G. Muxikaren Fernando Amezketarrarenak”<sup>10</sup>.

Aurretik ere esana zuen:

“Su vida de Genoveva de Brabante (1885) es importante como libro muy leído y como fuente de más de un bersolari”<sup>11</sup>.

Jardunaldi honen hasieran aipatu den itzulpena da: Gregorio Arruek itzuli zuen Cristobal Schmid-en Brabanteko Jenobebaren bizitza. Aspaldidanik zen ahozko kontaketa ondu, baina mundu horren ondu soil, hari eta XIX. mendeko zenbait idazleren arreta erakarri zuen arte. Idazleok beren langai bihurtu eta bakoitzak bere erara eman zuen. Arruek bertsi horietako bat itzultzen du, Schmid-ena, hain justu. Ahozkotasunaren barnean bizi zen mundu hagiografiko-leiendazkoan jatorria zuen kontaketa honek literatur bizitza izan ez ezik, eragin ere egin zuen, liburuaren irakurketa beste testu batzuk sorraraztera heldu baitzen. “Libro muy leído” zioen Mitxelenak, 1868an izan zuen lehen argitalpenari XIX. mendean bertan argitalpen gehiago erantsi izanak, hala erakusten du.

Beraz, ez zebilen oker Azkue langaiak hautatzerakoan. Ahozko munduan ezaguna zen leienda idatzira igarotzean, euskaldunak abegi ona egina zion, Arrueren itzulpenak ederki asko agerian jartzen zuenez. Hala ere, Azkuek ez zuen eskuratu Arruek lortutako oihartzuna. Ikusi besterik ez dago *Euskalzalet* aldizkarian atalka-atalkako berrargitalpena hastera doalarik ematen duen arrazoi berrito plazaratzeko: asko zabaldu ez delako. Brabanteko Jenobebaren bizitza hunkigarriak erakarmen handiagoa izan zuen.

Azkueren ardua nagusia ez zen egon hainbeste istorioak idaztean, nola euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, istorioak idatzita edukitzean eta batik bat istorio horiek idazteko zerabilen hizkuntzan. Azkue hizkuntzalariak hainbesteraino jartzen du arreta hizkuntzan, non berau istorioak idazteko tresna soila baino gehiago duen: hizkuntzaren erabilera jakin bat erakusteko bitarteko du istorioa. Istorioak idazteak sorrarazitako erakarmenak baino gehiago beste zergati batzuk bultzatzen dute kontagintzara: euskaraz ia landu gabea den eremua lantzeak eta batik bat istorioak idazteak hizkuntza erabiltzeko ematen duen aukeraz baliatzeak.

Azkue kontalaria ezin bana daiteke Azkue hizkuntzalariarengandik, ezta, neurri apalagoan, Azkue musikagilearengandik ere. Arrasto horiek nabariak dira liburu moduan plazaratu zituen kontaketa. *Bein da betikon* Azkue musikagileak kanta testuratuko du; Azkue hizkuntzalariak “Aclaración de

---

10. MITXELENA, Koldo: “Liburu sorta zaharberitu baten atarian” in ARRUE, Gregorio: *Santa Jenobebaren bizitza*, Erein, Donostia, 1987, 11. or.

11. MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1960, 130. or.

voces menos usadas” eransteaz gain, istorioa bera bi bertsio linguistikotan emango du:

“Eskerreko erreskadaan Bizkai guztiko izkera edo berbeta bat egiña oitu dogu, eskumakoan Lekeitiokoa” (102. or.).

Ez du argitzen jokabide honen zergatia. Zergatiak bilatzen hasita batzuk aurki daitezke: bizkaieraz idatzi nahi baina, aldi berean, Lekeition entzundako leienda izaki, oihartzun hori gorde nahia edo bere sorterriari omenaldi berezia egin nahia, edo Azkue hizkuntz aztertzaileak horrelako saiakuntza atsegin izatea... Eta arrazoia oso sakona ez izan arren, agian, kontaktzen zuen istorioa laburra izatea; izan ere, istorioa bi bider kontatu eta gero osatutako orrialde-kopuruak, liburuskaren neurriak ez ditu gainditzen. Hauetako arrazoiren bat, guztiak, edo besteren bat eduki zezakeen, baina, irakurle arruntari behintzat ez zion eskaini modurik erakargarrienean. Kontaketa bat irakurtzera abiatzen den irakurle arruntaren, eta ez hain arruntaren, interesgune nagusia ez dago aldaera linguistikotan. Traba besterik ez dio egiten irakurketaren jarraikotasunean. Berrargitalpenean, *Euskalzale* aldizkarian atalka-atalka ematen duenean, bateratu egiten du; haatik, atalkako argitalpena ere ez da erosoena eta erakargarria irakurlearentzat. Beraz, istorioa ez zitzaion aurkeztu irakurleari literatur bizitza sendoa izatera lagunduko zion modu batean.

Beste irakurgairik ere idatzi zuen Azkuek XIX. mende honen 90. urteetan. Laburrak, halaber, aldizkariko argitalpen soila izan zuten. *Euskalzale*ren ale desberdinetan eman zituen atalka-atalka 1897an: “Urkiolako igarlea”, “Kristobal andia”, “Eremutarra” eta “Batxi guzur”.

## **2. ARDI GALDUA. R. M<sup>a</sup> AZKUEK ARTEKA-MARTEKA EGINDAKO GERTIRUDIA**

Kontaketa bat jasotzen duen bere bigarren liburua *Ardi galdua* (1918) da. Izenburuak liburuak kontaktzen duen istorioari buruzko lehen berria emateaz gain, besterik ere gehitzen du: “arteka-marteka egindako gertirudia”. Hamaita zereginetan murgildurik, egiteko horiek utzitako tartetxoetan egin du. Idatzitakoa gertirudia da, lehen oin-oharrean dioenez, “novela”. Beti izendape-nik egokienaren bila, Azkue hizkuntzalaria irakurgaitik gertirudira igaro da. Euskalkiz ere aldatzen du: bizkaiera laga eta gipuzkera hautatzen du. Oraindik harantzago doaz liburu moduan argitaratu zituen bi kontaketen arteko aldeak. Hala, langaiei dagokienez, leienda utzi eta ahozko kontaketen mundutik urrutiratu egiten da, ardi galdu baten eskortaritzeaz jarduteko. Istorio hori kontaktzeko ere ez da baliatzen kontagintzan ohikoena den moduz: kontalari jakin bat bitarteko bideratu gabe narrazio-ahotsa, zenbait pertsonaiek elkarren artean trukutzen dituzten gutunen esku uzten du.

Ardi galdua Medel Olazarreta da. Medel edo Emeterio -noiz edo noiz erdarazko ordaina ematen du- gutun-trukea hasi baino hamalau urte lehenago Californiara joan zen. Ameriketako egonaldian galdutako fedea, bere jaioterrian, Leaburun, egingo diren Misio batzuetan berreskuratuko du. Hamahiru

eskutitzez baliatuko da pertsonaiak burutzen duen aldaketaren berri emateko: Medel Olazarretak Californiatik Leaburuko bikario jaunari 1887.eko garagarriaren 6ko datarekin igortzen dion eskutitzarekin hasi, eta Leon Olazarreta apaizak, Medelen semeak, Aita Gabriel Batizi Leaburutik 1901eko abuztuaren 26ko datarekin bidaltzen dionarekin amaitzen da.

Ardia galtzea Amerikak ekarritako gaitza da, hor galtzen baitu etxetik eraman zuen erlijioa Medel Olazarretak. Hala irakur daiteke hamargarren eskutitzean, Belauntzako Agustin Basalde apaizak Azpeitiko bereterburu jaunari igortzen dion eskutitzean, hain zuzen ere. Bi apaizon arteko gutunak Medel Olazarretak bere seme Leoni egindako aitorpena hitzez-hitz jasotzen du:

“Seme, etxetik eraman nuen erlijioa, arroinak (zimenduak) utsak zitu-lako edo, galdu nian beintzat; eztiat orain inolako sinesterik”<sup>12</sup>.

Gutun giltzarria da hamargarren hau. Batetik, lehenbiziko aldiz, Medelen hitzek beraiek baiesten dute fede-galtze hori; bestetik, baiespen horren aurretxoan, planteatzen da Medelen fede-galtzeak sorrarazten duen arazoa:

“Baina norbait (diotenez, Isabel, Leonen izeba Isabel) asi omenzan Medelengan belztasunen bat nabaritzen; ta isil-misilka lenengo, txutxumutxu gero, zurru-murru geroago ta esan-mesanez azkenean, nunnai, Leabururen lau egaletako sukalde guztietan zabaldu zan: Apaizaren aita etzala kristau ona, Pazkoazkoa etzuela egin; Elizan, oyutegira bai; opalmaira, ordea, etzala beintxo ere urbildu” (101. or.).

Medelek Elizak eman aginduen aurrean erakutsitako jarrerak susmoak eta esamesak sortuak zituen leaburutarren artean. Bere aitorpenak susmo horiek baiestean, kristau on ez izate horrek sorrarazten duen arazoa, ustezko gabe, benetako arazo bihurtzen du. *Ardi galdua* du izenburu, baina ardia ardi galdu lege ez du aurkezten hamargarren gutunerarte eta hala aurkeztu orduko eragiten duen gatazkaren berri ematen du. Orain bihurtzen da arazo Emeterio Olazarreta fededun ez izatea, eta ez orain arte. Besterengan sorrarazten du arazoa eta ez bere barnean; izan ere, pertsonaiaren barnean ernetako tirabira gabe, kontzientzi mailako krisi pertsonala gabe, beste batengan eragitera heltzen den zirkunstatzia da: Medel Olazarretaren seme bakarra, Leon, jadanik apaiztu da eta aitaren bekatu larria bitarteko, auzitan jartzen du Leaburuko erretore izatea. Eskandalu hutsa eliztarrentzat. Zeharo abaildua dago Leon apaiza.

Beraz, arazoa ez da planteatzen fedea galdua duen Emeterio Olazarretak egoera hori berrikustera bultzatu duen gertaeraren bat bizi izan duelako, edo bere gogoetek berrikustea gomendatu diotelako, baizik eta aita fede gabea izatea seme apaizak problematiko bihurtu duelako eta apaiz izaten jarraitzea bera auzitan jartzera heldu delako. Bestalde, arazoa planteatzen denerako

---

12. AZKUE, Resurreccion Maria: *Ardi galdua*, Jesusen Biotzaren elaztegian, Bilbon, 1918, 104. or. Aurrerantzean egingo diren aipamenak argitalpen honetatik jasoko dira.

testua osatzen duten hamahiru eskutizetatik bederatzidatzita daude, kontaketak bereganatzen duen hitz-ore osoaren bi herenak gauzatuta daude. Gauzak honela, ez da berbaldi askorik gelditzen planteatutako arazoaren garapenerako. Garapena ezin luza daitekeenez, nekez eman ahal izango du kontaketa fedegaltze batetik fedeberriskurapen batera egon daitekeen prozesu baten berri.

Arazoaren konponketaren albistea hurrengo eskutitzak berak emango du. Hamargarren gutunean aurkeztutako arazoa, hurrengo eskutitzean, hamaikagarrenean, "Aita Mendiri-ren eraskinak", konpontzen da. Gutun honek dioenez, 1901eko garagarriaren 13an Medel Olazarreta Misiotara joango da Leaburun eta Misio hauen barnean artegiratuko da. Beraz, batpateko fedeberriskuratzea da. Bilakaera baten emaitza gabe, gertaera jakin batetik, Misioetatik, eratoritzen den aldaketa da. Batpateko fedaldaketa honek bere seme Leonen arazoa konpondu du.

Gertaerak oinarri dituen kontaketa batean arazoaren baten planteamendua, arazo horren garapena eta garapenaren ondotik emaitza batera heltzea da ohikoena. *Ardi galduan*, arazoa ia bukaeran planteatzen da eta, garapenik gabe, emaitzaren berri ematen. Hamargarren eskutitzerarte ez da Medel ardi galdu legeaz aurkeztu. Gainera, izenburuaz gain oso zantzu gutxi daude arazoak alderdi horretatik etorriko direnaz oharretarako; izan ere, horrainoko gutunak beste pasadizo batzuekin "bete" dira: Leaburuko apaizak Medelen eskutitzaren berri Meza Nagusiaren ondoren eman, eta leaburutarrek eskutitz horrek diotenari egiten dizkieten iruzkinak; Medelek Ameriketara joateko izan zituen arrazoiak; Medelen ondasunekin zer egingo luketen Leaburun; Medelen lehenbiziko etorrera Leaburura; Leon Olazarretaren, Medelen semearen lehen meza ematea...

Hamargarren gutunak arazoa planteatu, hamaikagarrenak irtenbidea jaso, eta azkenengo bi gutunek Emeterio Olazarreta fededunaren bizitzako pasadizoak jasotzen dituzte: bakea eta zoriona lagun bizi dira Olazarreta aita-semeak.

Ardi galduak berak ez dio hizpiderik sorrarazi Azkueri, ez dio kontajariorik eragin, ez baitu kontatu ez *nola* galdu zen, ezta *nola* artegiratu den ere. Ez dago prozesurik.

Gutuna hautatu du istorio hau kontatzeko. Agian, P. Lhandek uste duena egon daiteke aukera honen oinarrian:

"L'auteur a pensé sans doute que le Basque, qui ne lit point de romans mais qui lit fort bien, au contraire, des correspondances rédigées en euskara, se plierait plus aisément à cette forme"<sup>13</sup>.

---

13. LHANDÉ, P.: "Chronique de littérature basque", *RIEV*, X, 1919, 195. or.

Lhandek dioen bezala, Azkuek pentsa zezakeen euskaldunak zerbait irakurtzeko ohiturarik izatekotan, zerbait hori gutuna zela. Ameriketarako emigrazioak berak susta zezakeen eskutitzaren erabilera eta irakurketa. Harremanak etenda geldituko ez baziren, eskakizun honi aurre egin behar.

Zinez, gutunak ez ditu arau jakin batzuk jarraitzen. Genero honen barnean aldaera oro aurki daiteke: gutun-bidaltzailea da gutun-hartzaileari zer eta nola kontatu erabakitzen duena. Honenbestez, zernahi eta nolanhari gutunera dezake gutungileak. Hala ere, deigarria gertatzen da *Ardi galduak* estilo zuzenez egiten duen erabilera ugaria. Ia gutun guztietara eramateaz gain, bostgarrenean, Leaburuko apaizak Medeli bidalitakoan, hain zabala da elkarrizketaz egiten den erabilera, non zenbaitetan antzerki-testua dirudien.

Hainbeste elkarrizketa gutuneratuz, eskutitzok irakurterazago eta irakurtarinago bihurtzea bila zezakeen. Baldin eta baliapide honen erabilerara irakurketa errazteko jomugarekin jo bazuen, jarraitzaileak aurkituko zuen gerora. Bada hogeita hamar urte beranduago, Azkuek *Ardi galduan* elkarrizketaz egiten duen erabilera zabala baino oraindik oparoagora jo duenik, testua irakurterazago eta irakurtarinago bihurtzeagatik. Gerra ostean bere eleberri bakarra idazten duen Joseba Eizagirre lekuko. *Ekaitzpeani* (1948) jarri zion hitzaureraren aitortzen du:

“Euskeraz irakurtzeko zaletasuna pixtu-arazi eta errezagoko irakurtzeagatik egintza honen geiena elkarrizketa-eran antolatatu det. Eta ala, alkarrizketaz egiña dagona arturik, antzokirako ere errez antzeztu liteke”<sup>14</sup>.

Jakina, irakurleari begira egindako aukerak erabat baldintzatu zuen Eizagirreraren eleberria; izan ere, batik bat elkarrizketa eta akotazioekin adierazitako istorioaren legeak eta zehar estiloa nagusi duenarenak ez dira berdinak. Azkueren *Ardi galduan* ere eragin zuen estilo zuzenez baliatzeak, besteak beste, zehar estiloak baino toki gehiago eskatzen duelako.

Istoria testuratzeko-moduari dagokion alderdi honetaz gain, deigarria gertatzen da, halaber, zer den gutuneratzen duena atzematea: ipuina, kantak-letra eta musikarekin- edo Medelek Leaburuko haurrei ematen dien ingelesko eskola bat gutun desberdinetako osagai dira. Gisa honetan “betetzen” dira eskutitzak, modu honetako osagaiek hartzen dute Medelen fedegaltzeak eta geroko berreskuratzeak har zezaketen lekua. *Ardi galdua* izenburu izan arren, ardia galduta egotea ez da kontajarioa eragin diona. Fedea galdu eta berreskuratut duen pertsonaia batetik, eta gutunaz baliatzeak bestetik, beste aukerarik ematen zuen: kontzientzia baten barne-prozesuaren berri emateko aproposa izan zitekeen, baina ez da hori testuan hezurramitu duena.

Azkue musikagilearen eta Azkue hizkuntzalariaren arrastoak nabarmenak izaten jarraitzen dute. Kantak salatzen du lehenbizikoa, testuko ohar metalin-

---

14. EIZAGIRRETAR, J.: *Ekaitzpean*. Ipuinberri, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1948, 4. or.

guistikoek bigarrena. Ohar horiek egiteko parentesia eta izartxoak darabiltza: parentesiaz hitzaren sinonimoa emateko baliatzen da; izartxoaz markaturiko hitzentzat liburuaren bukaerako “geigarria” eransten du. “Geigarri” horretan izartxodun hitzei buruzko argibideak ematen ditu, ordena alfabetikoa jarraituz.

### 3. AZKUE KONTALARIA

Bi kontaketa-liburu hauek argitaratu zituen Azkuek. Alabaina utzi zuen hirugarren bat argitaragabe: *Latsibi*. Azkueren kontaketarik luzeena, eta ez gutxigatik gainera, eleberri laburraren mugak aise gainditzen ditu. Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak 1989an argitaratu zuten eleberri honen idazketa-garaia zehaztu ez den arren, Aita Villasantek modu honetan kokatzen du Azkueren ibilbidean:

“Azkuek, bere bizitzako lehen aldian, bizkaieraz idazten zuen. Gero -baina aski goiz- euskararen batasunaren kezka sartzen zaio, eta berak amets duen batasun-suerte horretan idatziko du. (...).

1919. urtean (sic) argitaratzen du Azkuek *Ardi Galdua* deritzon elaberria, gipuzkera osotuan egina. *Latsibi*, berriz, bizkaieraz dago, eta xehetasun honek beronek ere *Latsibi* lehenagokoa dela susmarazten digu. (Horrek ez du esan nahi, bestalde, geroagoko ukituak eta zuzenketak *Latsibi*-n ez daudenik, edo egon ez daitezkeenik)”<sup>15</sup>.

*Latsibi* idazteko gertaera historiko batera jotzen du: 1890.eko hauteskundeetan Kartagoarren (liberalen) eta Erromarren (karlisten) artean eman zen lehia Mungia aldean. *Latsibin* ez da urruntzen argitaratu zituen bi kontaketa-liburuen ildotik eta, hauetan bezala, Azkue musikagilea eta hizkuntzalaria kontaketara heltzen dira. Lehenak kanta testuratzan jarraitzen du, bigarrenak kodea argitzen: parentesiak maiz azaltzen dira; ohartxoek bidez egindako azalpenik ez da falta.

Azkue kontalariak, bere garaikideek erabili zituzten langaiez elikatuz eta ildo berean kokatuz, kezka berdinak islatzen ditu.

Langaiei dagokienez, ahozkotasunean jatorria zuenari, historiak eta Ameriketarako emigrazioak emandakoak erantsi zizkion. Islatutako mundu-ikuskerari dagokionez, bere garaiko zenbait euskal kontalarik bezala, euskara eta fedea uztartu zituen: euskara fedea galtzeari jartzen zaion harresia da.

Ez da bakarra, ez lehena, ahozkotasunean bizi zen istorioa hartzen idatziko mundura eramateko: ahozkotasunean dituzte sustraiak Elizanbururen *Piarres Adamen* Piarresek kontaktzen dituen zenbait istoriok, edo Jean Duvoisinnek *Baigorriko zazpi liliaken* kontaktzen dituenak.

---

15. VILLASANTE, Fr. L.: “Hitzaurea” in ALBERDI, Mirari (Ed.): *Resurreccion Maria Azkue. Latsibi*, Euskaltzaindia, 1989, XII. or.

Ezta ere, ez da bakarra, ez lehena, gertaera edo pertsonaia historikoren bat langai hartzen. *Latsibi* noiz idatzitakoa den zehatz-mehatz ez jakin arren, Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea* (1898) eleberri historikoaren ondorengo da. Ez da bakarra, ez lehena, Ameriketara joan eta bertan fedea galdu duen Indianoa testura ekartzekoan ere: Txomin Agirreren *Kresalako* (1906) Indianoa lekuko.

Zalantzarik gabe, Txomin Agirrek Azkuek baino askoz tratu gogorragoa eman zion Indianoari. Jarrera horren zergatiari huts egiteko arrisku handiegitan sartu gabe erantzun dakiok. Agirreren Indianoak fedea ez ezik, euskara ere galdu egiten du Ameriketako egonaldian, ez horrela Azkuerenak. Azkueren Indianoak Ameriketara igarotako urtealdi horietan euskara gordetzeaz gain, bere ama-hizkuntzarekiko atxikimendua erakutsi du<sup>16</sup>. Agirreren Indianoak Arranondoko bazterretan erdara edo euskara traketsa erabiltzen eta euskara mespretxatzen duen bitartean, Azkuerenak Leaburun euskara erabiltzeaz gain, bere emazte amerikarrari ere zenbait hitz erakutsi dizkio. Eleberriaren bukaeran batak zigorra eskuratzen du, besteak saria: Agirreren Indianoak zituen ondasun guztiak xahutu dituelako, berriro Ameriketara itzuli behar du; Azkuerenak, berriz, Leaburuko bizimodu baketsu eta zoriontsua berreskuratzen du. *Ardi galdua* eta *Kresalako* kontalariak epai desberdina eman dute, aurkakoa, hain justu. Batak saritu egin du Indianoa, besteak zigortu. Euskara eta fedea gordetzen dutenak bakarrik saritzen dira: balore horiei atxikirik bizi izanda eskuratzen da zoriona. Azkueren Indianoak bi balore horietako bat besterik ez du galdu eta galdu ez duen horrek, euskarak, bestea berreskuratzeke ahalmena ematen dio.

Hamargarren gutun-giltzarri horretan Belauntzako Agustin Basalde apaiak Azpeitiko bereterburu jaunari honela diotsa:

“Medelen osotasuna ta gurea, Jaunari eskerrak, eztira berdinak. Gurea bezelakoa izango zan orrena ere, irakurri izango zituen inarki (paper) itsusi galgarrien orde, emen ditugun Jainkozkoak irakurri balitu” (105. or.).

Irakurriko zituen paperen izaerari leporatzen die fedea galtzea. Euskarazko idatziek kristau-fedea oinarri dutenez, sinismen hori izaten edo gordetzen laguntzen dute: euskarak harrisia jartzen dio fedea galtzeko arriskuari.

Txomin Agirreren *Garoako* (1912) Joanes protagonistaren iloba Martin “Enda, oitura ta izkera guztietakoak nastean” dabiltzan Somorrostron “alperrik galdu zuten” eta “Arrezkero ogi bedeinkatua bezala irakurri oi zuan, igandietan, kertenkeriz ornituriko paper purtzil bat”. Somorrostrokit aitona Joanesen Zabaleta baserrira doanean Gabonak igarotzera “Paper bat eskuetan zua-

---

16. Medel Olazarretak bere seme Leoni idatzitako eskutitzaren pasarte batean honela dio: “¡¡Ikasgu (Colegio) orretan eztuela inortxok ere euskeraz ezkutitzik egiten!! ¿Eta ik ere ire aita euskaldunari erderaz egin bear? (...). Urrerorako eska zayok orko nagusiari, aitarekin, korreoz bada ere, euskeraz mintzatzeko baimena” (18. or.).



la agertzen zitzaizen egunero”: *El Rasero*<sup>17</sup>. Euskaraz ez dagoena, noski, euskara eta kristau-fedea elkarri estu-estu loturik baitaude.

Bere garaikideek azaltzen duten beste kezka bat ere nabarmena da Azkuerengan: hizkuntza bere baitan eta hartzailearekiko harremanean. Bera da, garaikideen artean, interesgune hau gehien azpimarratzen duena.

Hizkuntz arazoak kezka-iturri dira. Arautu eta normalizatu gabeko hizkuntzaz baliatu beharra, hartzailegoa euskaraz eskolatutakoa ez izatea, euskaraz istorioak irakurtzen ohituta ez dagoen irakurlea izatea hartzaile... Kezka horiek kontaktetan beraietan islatzen dira. Ohar metalinguistikoak Azkuerengan ez ezik, Txomin Agirrerengan edo Donostiako “itz-jostaldiek” sarituta-ko zenbait leiendagilerengan ere aurkitzen dira. Agirrek edo leiendagileok oin-oharren bidez argitu zituzten testuratutako hainbat hitz, Agirrek sinonimiaren erabilera berezi batera ere jo zuen. Sinonimiaren erabilera berezi hori honakoa da: bi terminoetako bat hizperria edo erabilera urrikoa da; bestea, berriz, tradiziiodun mailegua. Gisa honetan, batetik, hizperriak edo erabilera urriko hitzak ulermenaren ikuspuntutik sorrarazi zitzaketen arazoak gainditu egiten ditu; bestetik, berak hobesten duen aukera adierazita gelditu da.

Istorioak idazteari ekin diote. Idatziak izate horrek ahozko hizkeratik urruntze-mailaren bat eskatzen die, ahozkoa baino hizkera jasoagoa bilatzea. Lexikoaren alorrean, hizperriak edo erabilera urriko hitzak edo euskalki orotakoa ez zenak... aukera eman zien eguneroko hizkeratik urruntzeko. Baina, urruntze honek bere kostuak zituen: eguneroko hizkeratik aldentzea eta gehiengoengana heltzea uztargaitzak dira. Ohar linguistikoek leun zezaketen uztargaiztasuna eta, bidenabar, hartzailea jantziago bihurtu bere hizkuntzan. Zenbait kontaktagilerengan atzeman daitekeen jokabidea da. Horien artean Azkue zen hizkuntzaren ezaguerarik handiena zuena, baita hizkuntzaren inguruko gorabeherak gehien erakartzen zutena ere. Azkue hizkuntzalari honek bete-betean harrapatu zuen Azkue kontalaria. Hala dio Aita Villasantek:

“Hizkuntza-arloan asko dakien jauna da, eta dakien guzti hori, edo asko behintzat, sartu nahi izaten du bere idazlanetan. Beharbada horrexegatik astuntxo gertatzen da Azkueren idaztanka; ez da, adibidez, irakurlearentzat, Txomin Agirrerena bezain atsegina eta gozoa”<sup>18</sup>.

Euskal kontaktak, sorreratik hasi eta, denboraldi luze samar batean, hezitzea bilatu du. Hartzailea hezi hizkuntzan, hezi jokabideetan, hezi baloreetan... Heziketaren alor honetan hizkuntzarena du erdigune Azkuek. Euskara ezagutzen du, ondo ezagutu ere. Istorioak idazteak hizkuntzaz baliatzea eskatzen dio eta modu honetan erabileran bertan erakuts dezake gramatikazko araua edo hiztegia bera. Azkue hizkuntzalariarentzat kontagintza bitarteko bat

---

17. AGIRRE, Txomin: *Garoa*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1987, (Bingen Zupiriak prestatutako edizioa), 166, 167, 170. orr.

18. Op. cit., XII-XIII. orr.

da hizkuntza lantzeko: morfologian edo lexiko-mailan hobesten duen forma hura gauzatzeko, hitzak argitzeko eta abar.

Azkuek hizkuntza normaltzea izan zuen jomuga. Azkue kontalaria ez da aldentzen helburu horretatik; izan ere, bere kontagintzak ez dio erantzuten hainbeste istorioak kontatzeko sentitzen duen behar bati nola euskal literatura normaltzeari. Hau da, istorioak kontatzea jolas-jarduera baino gehiago du normaltze-jarduera: euskarak beste hizkuntzak aurkezten dituzten testu-tipoak izatea, euskarazko adierazpen literarioak beste hizkuntzetakoek erakusten duten aniztasun berbera agertzea. Gabeziak osatuz normaldu, besteen pareko egin. Kontaketa, bere baitan helburua duen tramankulu baino harago, bitarteko du. Bitarteko, euskal literaturako generoak normaltzeko, bitarteko, hizkuntzaz zuen ezaguera eta usteak gauzatuak erakusteko. Egiteko horri lotu zitzaion.